

XVIII eta XIX'garren mendeko Bidasoako olaen egitura ekonomiko ta sozialari buruz hurbiltasun bat

JESUS PABLO CHUECA

BRERAREN GISA

Azken mendeetako hutupune historiografiko betetzeko beharra dugu bina historio ekonomiko ta deritzaten protoindustria gaitzat hartzen badugu gehiago ere.

Nahiz eta Euskal Herriko besta lurraldeetan, hain zuzen Guipuzkoa, Bizkaia Arabako probintzietan, urte batzuetatik huriat, azken gai hauek ukituak ta ikertuak izan (1), Naffarroan aitzitik, nabaritzen da holako lanen hutsunea, batipat Nafarroa mailan harturik.

Historiografiko tradizio ez dugu eta gainera ikertzaile ai tzindariak erran duten bezala gai honen inguruan oztopu ugari kokatuak daude:

Iturrien ezizatea, informazio iraun gabeakm texty ta daty sajababatyajm ydakeetxeteko artxiboen egoera penagarria eta baita ikerketaren arazoak ere (neurri ezberdinak probinzian arauera eta baliokidetza garbirik gabe ...) (2).

Hala eta guztiz, gero ta beharrezkoago da hustsune hau betetzea eta Euskalherriko historiaentzat Nafarroatik bere maila eta arload osatzea.

Gure txospena bide hau jarraituz ez da izango pauso haundi bat eta asmo ta gogo bezala baliodo balu gure partez pozik geratuko ginatke.

BIDASOAKO BURDINOLAK

Ipar Nafarroako hibai ta erreken inguruan eta zahazki bortzhirietan burniolen lekutasuna aspaldidanik jakina.

Bai Comptos Camaran eta bai Nafarroaki artxibo nagusia (A.G.N.) adierazten dizkigun agiriak agertzen dira:

Honela N.A.N. 1424 ta 1434ko ordainketen erlazio batzu burniolen zerrendekin aurki ditzakegu:

1424-koak dio:

"En Vera:

Dolamena
Marcadia
Semea
Garmendia
Galayn (Zalain)
Bereu

En Lessaqua, Echalar, Canzi, Aranaz:

Garbisso
Guinea de Suso
Guinea de Yuso
Echalar
Berrizaun de Yuso
Yareta
Yuanola
Aranybar
Echallar Lasar
Lombardolla" (3)

Urte hauek baino lehen aintzinako "aizeolak" edo "agorrolak", mendietan kokatuak zeuden olak, desagertu izan ziren eta bukatu ziren neurrian ola berri batzu genuen; deritzagun zeharrolak, erreka urbaztarretan ezarriak. Hidraulika aroa hasiz gero mendez mende gure mendeko bezpera arte aldaketa haundirik gabe iraun behar zuten.

Bosteun urteko epe honetan Europako burnigintzak labegaraien sorrera ezagutuko du eta harrikatzaren sarrera ta erabilpena ere.

Gailurreraino pudelatu labe eta Bessemer biurtzegailuarekin helduko diren aurkikude hauek gure burnigintza tradizionala hilaraziko digute.

Baina une hau ailegatzen den bitartean bizi bizirik zairen Bidasoako olak.

Honela XVIII'garren mendeko azken urteetan aurreko zerrenda txikiagoa izan arren bartz herrietan lantoki hauek aurki ahal genituen:

Beran: "Ola-aundia"
Igantzín: Berrizaun
Lesakan: Bereau, Erkaizti, Biurgaray
Etxalarren: Echalarssar
Arantzan: Aranibar

Madozen 1847'ko hiztegian guzti hauek agertzen ziren oraindikan lantzen. (4).

EMANALDI TA MANTENUAREN BALDINTZAK

Burniolen emanaldia Irailaren 29'an betezen zen, osagaien ta erremita guztien inbentario bat eginez. Inbentario honetan a dituel hiru zatiei ekin zieten: hargintza, zurgiantza ta erremintarako lanabesa. Hau izanez gero, olaren osagarri oinarrienak: gabiardatzak, gabia, yngude, boga, guezurraskak, ondaskak, anteparak, gurbilak ta tormentegiak ... Bailioztazen zuten. (5)

Lau urte barru errentapena bukatzen zen eta bertze maisterra sartu behar bazuen ekainaren 24 erako lantokia libre utzibehar zuen. Orduan inbentario berri bat egiten zen jartzapenen hobekuntzak ta gaizkokuntzak eta bere sbalioztapena adieraziz. (6)

Dena dela, olagizonak bere errentapenan zehar mantenu lanak egin behar zituen: anteparen garbiketa ta betuneztarzea, osagarri nagusien (ardatzak, guezurraskak, ragoak, labeak) konponketa, e txeko ta lantegiko erretaila biutez behin. Urteko errenta ezarrita zegoen arancel hauetan eta egurra ta ikatzen moduan herenetan ordaindu behar zen.

IKATZ, MEA TA BURNIA

Ikertu ditugun hiru arantzeletan bere kopuruagatik, lehendabizian ekatzari buruzko artikulua nabaritzen dira. (7) (8)

Olen zeharkako sarreren zati haundi bat ika tzigintza ta bere garraiotik etortzen zela pentsa daiteke.

Lehendabizi herriek olagizonei ematen zizkieten labe ta ragoak funtzionamendurako, ikatz loteak eta bere prezioak.

"Dará también la Villa como Carbón de dotación y un auxilio a

los ferrones para que trabajen las Ferrerías por todo el tiempo posible 1700 cargas a cada una de las 3, al precio de 4 Reales Vellón"

-ARANCEL 1852- Art. 4 (9)

Beste batzutan ikatz egiteko egurraren kopurua bakar bakarrik adierazten da.

"Esta Villa les dará leña para reducir a carbón anualmente a dichas Herrerías y sus Arrendadores.

Bereau - 1000 cargas.

Viurra, Ercaizti: a 2000 cargas con el descuento del 10% de premio que deberán pagar a esta Villa a más de la referida renta anual al precio de 2 Reales cada carga. (10)

Udan barna ikatz egiteko, egurra hau martxoak 15 baino lehan moztu behar zen. Martxotik azarora arte debekaturik zegoan edozein ebaketa.

Ikatzaren beharrak aurrera eramateko, garbi ikusi ahal dugu bost hiriak faltan zeudela garraioaren prezioen artikuluetatik. Olek, ikatza, kanpotik ekarri behar zuten.

1767'ko arantzelan irakurtzen; nundik eta zein prezioetan ekarten zuten jakin dezakegu:

"Los arrendadores que fueren de las referidas 3 hererías de verán pagar durante sus arriendos los portes que con separación y distancias abajo se mencionaran: el arrendador de la harrería Bereau por carga de carbón que condujeran de los montes de Vertiz pague 3 reales y cuartillo.

Cocorico, Anvolegar y Baçalecu 1 real 3 cuartillos
Iturrigorrieta, Burdincelayeta 2 reales y 1 cuartillo
De los ayales de los 4 pueblos del Bidasoa 2 reales y 3 cuartillos.

Ituren 3 reales

Zubieta 2 reales."

(11)

Artikulu hoietatik burdinoletan zeinarekin lan egiten zuten meari buruz puntu batzu atera ditzakegu.

Gehien bat lan egiten zen Somorrostroko mearekin baina baita bost hiriko meategitik ekozpena ateratzen zuten ekozpenarekin ere.

Madozek bere histegian meategi batzuen erakina ematen digu:

| Beran | La cántabra | Burnia | |
|-------|--------------------|--------|------|
| " | D. María de Pineda | " | |
| " | San Esteban | " | |
| " | Villa de Vera | " | |
| " | Vidasoa | " | |
| " | Alzate | " | |
| " | Eunuco | " | (12) |

Arantzeleekin jarraituz, ikatzaren gisan ezaltzen zaigu nundik ekartzen zuten mea. Bost hiriko meatokien izenak:

" Canalechipi
 Meatsevenieta
 Meacacoegua
 Ubiria
 Echesuri
 Errecaberas
 Urteaga "

BND

Denek Lesakako ta igantziko olaetara eramaten zuten bere burnia eta Beran zegoen. Urteaga kenduz, besteak Lesakan kokatuak zeuden.

Hala ta guztiz, lehen erran dugun bezala, itxasoko mea deritzana garrantzisuena izan zen. Bizkaitik Hondarribiraino ekarria, zen eta handik gabarretan montoiako lehorreralekuraino.

"Todas las Venas procedentes de Bizkaia o que se traigan de fuera en Gavarra para esta Ferrería deberán descargarse en Montoya y desde este punto 1 Real sencillo por quintal de 6 Arrobas"

Beste daturik gabe zaila da jakitea zein neurrian erabiltzen zen hemengo ta kanpoko mea, zeren era ez baitditugu zenbaki zehatzak zeharkako datuak baizik.

Lesakako Udaletxeko Aririak aferu hau hola argitzen digu:

"La falta de mena por la prohibición de la navegación del río Bidasoa la cual paralizará sin duda enteramente estas herrería dejando sin trabajo y en la mayor miseria a muchísimas familias del país." (14)

Beste batean garbiago jakinarazi digu:

"1984 quintales castellanos de fierro dulce con mineral de Somorrostro." (15)

Madozek bi meak nahasten zituzleta (Bi zati Bizkaikoarekin eta hirugarrena Nafarroakoarekin) aipatzen digu. Hala Bidasoako burnia, <madozen esana, hobetzen zen zeren bera "Vena espática" ematen bait zuen burnia oso garratza zen. Bizkaiko mearekin nahasterakoan ordea sekulada burnia lortzen zuten.

Meako erabateko multzoa jakiteko ez dugu zenbakirik. Hala ere <Luis M. Bilbao eta Emiliano Fdez. de Pinedok Somorrostroko mearen gainean zertan zehar kalkulatu dute Gipuzkoako ta Nafarroako kopurua. Handik bihurtune hurbildu bat atera dezakegu:

1791 tik (108.649 gg.) 1795 (2.385 gg.) arte jeitsiko da eta 1838 tik (30.230 gg) igoko da bere tontorreraino 1946'an (240.710) kintalekin. (16)

Arantzeletaz baliatuz ze motako lanak eta ze ekoizpenak egiten zuten jakin ehal dugo baita ere.

1852 arantzelak Bereauko olaz zioen:

"En esta haerrería se labrarán a quintalaje 3 clases de Fierro que serán Tocho de las formas y dimensiones que convenga al ferrón (3 reales sencillos quintal macho o de 6 Arrobas).

Planchuela y hierro para acero llamado vulgarmente aliruburdina a 4 reales quintal. (17)

Ekoizpen hauek bai kanpora bai bere gabira bidaliak izatenziran. Hortarako arana ezberdinak genituen Igantzín edo Lesakan. Azken herri

hontan exportapena libre zen bitartean bestean derrigorrez burni osoa pasatu behar zuten bere martinetara.

Arantzel berberak burniaren prezioak ekartzen dizkigu:

"Por quintal de fierro labrado carrobanda, carretil y cuadro de 10 líneas para arriba un real sencillo. Por quintal del Cella real y cuartillo. Por quintal de Cella de siete o ocho líneas real y cuartillo. Por arroba de zamarra un ral. Por arroba de trea piezas que se labran para componer la remienta otro real. Cuando haya que agregar o unir piezas, un cuartillo más por el fierro labrado a quintalaje." (18)

Eta ikatzarekin bezala jakin ahal dugu nora bideratzen zuten burnia garraloen prezioen artikuluegatik.

Berrizango arantzelak zerrenda hau dekarrikigu:

| | |
|-----------------|----------|
| SARA | 5 Reales |
| SAN JUAN DE LUZ | 5 Reales |
| VERA | 5 Reales |

Lesakako 1767 ko Arantzela ordeiz

"Por carga de fierro de 10 Arrobas a Sara y Azcain 3 reales y cuartillo.

a S. Juan de Luz y Ziburu 3 reales y medio
a Bainea 8 reales y medio
a Azámem 9 reaños y medio (19)

Produkzioaren zati bat hibaian barna Montoiako lehorralekuan zehar Hondarribiko kaiaraino zerameten.

"Por cada gavarada de 50 quintales de fierro desde el puente de Bereau el puerto de Fuenterrabía 64 reales y de Montoya al miamo puerto 24 reales." (20)

Burniaren merkatarutzeko ezaugarriak ta mota batzu ezagutzeko nan dugu memorial ta agiri aunitz. Batzutan Cortesei bidaliak beste batzutan Diputazioaren barna Virry edo Gobernura. Haietan agertzen da merkatarutzeko tirabirak eta arazoak.

Lehendabizian Nafarroako burnia babestu ta pribilegiatu e koizpena dugo. Kanpotarrek ekartzen zuten burdina 1748 ko Aranzeleko zerga ordaintzen behar zuelakotz.

"La regla generaljk les que los frutos y efectos que vengan desde otras provincias a Navarra por cuenta de estos naturales son libres y lo que no venga de su cuenta debe pagar los derechos señalados en el arancel de 1748 y que en él se señalan al fierro 3 reales por carga a la entrada y 4 a la extracción sin ninguna anotación respecto del de la provincia." (21)

Hemengo edo kanpotik ekartzen duten burnia Napartarrek aitzatik ez du zergarik jasaten.

Abantalla hauek bai Birry gatik bai Tablas Sacas eta peajes errentarietatik pikutan beti jarriak ziren.

Mendietako hiriek memorial ezberdinetan bere eskubideak behin eta berriro oroitzari behar zizkieten.

Arrun ezaguna de Carlos Igarrenko pribilegios. 1535 tik bost hiriek eta beste batzu (Goizueta, Leiza ...). Hala Bearne, nola Guipuzkoa hala Frantziara burdina eramateko eskubidea zeukaten zergarik ordaindu gabe nahiz eta gerreren garaian egon.

Birry ta errentariekin erazo gainean Frantzia aldetik beste oztopo ta traba heldu ziren mendea hasiz gero.

Luis XVIII garrendik aurrera Frantziara sartzen zituztenburni guztiak Eunko berrogeiko zerga bat jaso zuten.

Gure olagizonek memorial baten bidez Diputazioari eskatuzioten eska diezaiokeela Luis XVIII'garreneri zergak kentzeko.

"En este conflicto y estado lamentable no encuentran los ferrones de Navarra otro arbitrio que el recurrir a la protección de su majestad Luis XVIII soberano de Francia para que con un efecto de su piadoso corazón se sirva a rebajar y minorar los derechos de introducción del fierro en su reino." (22)

Bitartean olagizonek Diputazioaren barna Gobernuari jasoko memorial makina kanpotar burniaren sarrera debekatzeko.

"Los ferrones ven con dolor que se introduce en España hierro del extranjero con unos derechos no muy subidos y esto hace que el de su ferrerías no tenga despacho y que si se vende sea a precios tan bajos que no rindan aún ni lo absolutamente preciso para sostener las fábricas de suerte que si así se sigue se verán en la indispensable necesidad de cerrarla enteramente. En tal caso faltará tal vez para siempre este importante ramo de industria, desaparecerá el principal manantial de subsistencia y a esto se seguirá la miseria y la despoblación. que V.S.I. interponga su mediación con el gobierno a fin de que se prohíba enteramente la producción de fierro extranjero." (23)

1816 ko ekainaren 4 ko R.O. medio eskaera hauek baieztapena lortuko dute eta artz burdinari bi harenetan gaindutuko dizkiote zargak.

"Se ha servido resolver S.M. ... que el quintal de gierro extranjero que paga 31 reales y 8 maravedis se la umentan 2/3 partes más, que hacen 52 reales y 2 maravedis previniendo a las autoriades de Navarra, Bizcaya, Alava y Guipuzcoa haban que se elabore y mejore el fierro preparándole de modo que se facilite su consumo según las diversas manufacturas a que se aplica por cuyo medio logre ganar la preferencia al extranjero." (24)

Penintsulako beste probintziekin merkatarutzeko trabak kentzen olagizonen beste urratsa izango da.

N.A.N. hortz beste esankor memoriala dugu. Han "Felicidad del País de la Montaña" deskribapen negartsu egin ta gero olen egoera larria bi gauzetan finkatuko du:

- Amerikakoekin merkatarutzeko arazoak eta penintsulakoarekin merkatarari harremanetan oztopoak.

"En la situación actual irremediable la primera pero la segunda puede admitir modificaciones y reformas con general utilidad, los obstaculos que se oponen a la libre circulación interna no tienen otro origen que el cuantioso recargo de derechos del yerro que se vende a distintos reinos y especialmente al de Aragón para donde hay más considerable despacho. ... No hay otro arbitrio para el efecto que ponen en movimiento la libre circulación interior del hierro de navarra exonerando del adeudo de derechos o cuando menos deducirlos al mínimo posible." (25)

Nahiz eta 1841 arte holako memorial ugari, egin, eskaina hauek ez dira izango beterik.

"He dado cuanta el rey del expediente promovido por D. José Fro. Echenique y otros fabricantes de fierro vecinos de la montaña ... solicitando que el comercio del hierro sea libre y exento de los recargos que sufre en su intervención a otras provincias." (26)

Mendean aurreratzen den bitartean egoera gero ta larriago izango da.

Gerregatik (1808 ko eta Lehen Karlistada).

Produkzioaren hatsuneadk. Inglaterrako lingotearen sarrera ta konpetentzia eta batez ere labegaraien tekniken zabalkunde bortz hiriko bihotzaraino.

Olagizonek ez dute inolako berrimoldaketarik egingo teknologi berriarekin lantokien debekatzea baizik.

Honola zioen Lesakako Udaletxeak Jose Aranbarrik saiatuzuenean Labe Garai bat Beran ezartzea:

"Esta fábrica no promete ventaja alguna; al contrario será perjudicial en función de que por la abundancia de fierro que producirá sin duda, lo mucho carbón que necesitará podrá inutilizar las varias herrerías antiguas que existen en estas 5 Villas dejando sin trabajo a muchas familias especiales en este pueblo donde la casi totalidad de los habitantes se ocupan continuamente en las 3 harrerías propias de la villa. ... Con lo expuesto quiere decir a V.S. este ayuntamiento que no tiene por conveniente el País el montamiento de una nueva fábrica que pueda afectar tan to a las rentas municipales y tantas miserables que se ocupan en las herrerías." (27)

Urte batzu buru este proposamena burdinurtu lantegi bat Beran jartzeko Lesakako Udaletxeko baieztapena ta laguntza ezaguruko du.

Lantoki honek burdinolen amaieraren sinbolo izango da. Pixka pixkanaka 1867 arte, hiiko dira.

OHARRAK

- (1) Ikus Emiliano Fernandez de Pinedo; Luis M. Bilbao, Menu Gonzalez Portilla Agirreazkuenaga eta Diex Salazaren liburu ta txostenak.
- (2) Luis M. Bilbao, Emiliano Fernandez de Pinede, "Auge y crisis de la Siderometalurgia tradicional en al Pais Vasco" La Economia española al final del Antiguo Régimen" an. Ed; Alianza Universidad, Madrid 1982.
- (3) Archivo Generla de Navarra edo Nafarroako Artxibo Nagusia. Sección Agric. Industr. Minas Legaje 1 Carp. 70 lbis.
- (4) Pascual Madozen Hiztegian. Nafarroako zatian, 87 orrialdean.
- (5) Lesakako Artxiboa; "Libro de Entregas de las Herrerías Concejiles de la M.N. y M; L. Villa de Lesaca".
- (6) Ibidem.
- (7) Nafarroako Artxibo Nagusia N.A.N. Sección Agric. Insustr. Minas Legajo 3 Carp. 55.
- (8) Ibidem.
- (9) Ibidem.
- (10) Ibidem.
- (11) Ibidem.
- (12) Pascuala Madozen Hiztegia. Nafarroako zatian 89 orrialdean.
- (13) N.A.N. Sección Agric. Industr. Minas Legajo 3 Carp. 55.
- (14) Lesakako Artxiboa. 3 "Libro de Oficios" 7 Abril 1847.
- (15) Ibidem. 4 Junio 1847.
- (16) Luis M. Bilbao, Emiliano Fernandez de Pinedo, lan aipatuan.
- (17) N.A.N. Sección Agric. Industr. Minas Legajo 3 Carp. 55.
- (18) Ibidem.
- (19) Ibidem.
- (20) Ibidem.
- (21) N.A.N. Sección Tablas, Aduanas, Comercio. Legajo 9 Carp. 60.
- (22) N.A.A. Sección Tablas, Aduanas, Comercio. Legajo 8 Carp. 36.
- (23) N.A.N. Sección Tablas, Aduanas, Comercio. Legajo 9 Carp. 60.
- (24) N.A.N. Sección Tablas, Aduanas, Comercio. Legajo 7 Carp. 58.
- (25) N.A.N. Sección Tablas, Aduanas, Comercio. Legajo 8 Carp. 7.
- (26) N.A.N. Sección Tablas, Aduanas, Comercio. Legajo 9 Carp. 25.
- (27) Lesakako Artxiboa. "Libro de Oficios" 15 Agosto 1852.